ADISKIDETZA-SAKRAMENTUAREN ALKARTEKO OSPAKIZUNA 2024ko Garizuman

BAKEA
ETORKINAK
HITZA

ALKARTEA
BEHARTSUAK

Girotzeko

Arratsalde on, senideok. Ondo etorri eleizkizun honetara. Jainkoaren guganako errukia ospatuko dogu, harek bihozbarritzeko egiten deuskun deiari erantzunez.

Horretarako, gure ohitura eta irudimen batzuk albo batera baztertu behar izango doguz, eta Jainkoak dinoskunari zabalik egon.

Ez da gauza erreza izango, ohiturei lotuegiak gagozalako. Hasieratik eskatu daigun, ba, malgutasuna: ez gaitezala *geurean* zarratuta egon.

Ez dogu *geureari begira egotetik* autortuko gure pekatua. Geure burua barik, Jainkoa jarriko dogu erdiko; eta berak esan deigula zer itxaroten dauan gugandik gaur eta hemen, eta zertan dihardugun *beste aldera begira* bere deiei jaramonik ez eginez.

Horretarako, ba, hustu daigun gure burua; albo batera bota daiguzan *beste* ardurak, eta adi egon gaitezan esanetara, otoitzetara, abestietara, ezaugarrietara..., eta, batez ere, Jainkoak esango deuskunera bai salmoan eta baita ebanjelioan ere: bere Hitzean.

Sarrera oharra

Senideok: Garizuman zehar, eleiz alkarte lez, domeka bakotxean irudimen bat proposatu izan jaku (proposatzen jaku), gure begiak inguruaz jabetu daitezan; gure bihotza, inguruan sortzen diran kezketan, murgiltzeko; gure eskariek gure mundu txiki, estu eta ilunetik atara gaiezan, Jainkoak gura gaituan inguruetan agertu ahal izateko bere aurpegi

errukitsu eta maitalea.

Hau geure pekatuez arduratzea baino gehiago da: Jainkoagan jartea gure uste on osoa eta, esker onez, harek aurkezten deuskuzan esparruetan buru-belarri sartzea.

Jainkoak ondo ezagutzen gaitu. Dei egiten deusku eta eginkizun bat jarten deusku eskura. Goazen hori ezagutzera eta eskertzera.

Adiskidetu gaizala Jainkoak beragaz, ondokoagaz, beste gizaki guztiekaz eta Izadi osoagaz.

SARRERA ABESTIA

DEI EGINGO DEUST, nik entzungo
ospez jantzi ta libratuko,
bizi luzea nik emongo,
salbamenera eroango.

3. Jaunari deutso begiratuko ta distiratsu egongo;
hark aurpegia alai izango eta ez da lotsatuko.

6. Bide zuzena, bizi_emoilea deustazu erakutsiko.
Alaitasunez beteko nozu zeure aurrean betiko.

Abadearen agurra

† Aitaren eta Semearen eta Espiritu santuaren izenean
—Amen.

† Jaungoiko gure Aitaren eta Jesu Kristo gure Jaunaren grazia eta bakea zuekin.

—Bedeinkatua Jaungoikoa, Jesu Kristo gure Jaunaren Aita.

Otoitza

Zugaz adiskidetuak gura gaituzu,
ona, errukitsua eta maitalea zaitugun Jainkoa.
Besteen ardura barik, edo gitxigaz,
kontsumokerian eta atseginkerian ibiliz,
haserreak sortzen eta inguruak hondatzen
dihardugunok, Jauna,
bilatu daigula zeure antzeko izatean
gure atsegin guztien iturria, eskatzen deutsugu.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
—Amen.

Erantzun salmoa

Umetan, txarkeriak egiteak poztu egiten ginduzan, gurasoek eta nagusiek haserre egiten baeuskuen ere. Nagusitan ere zelango atsegina hartzen dogun txarkerietan, besteenik onartu ez arren, gure sakonean ontasuna gura izanik. Zergaitik lotsatzen gaitu on egiteak?

Salmo honegaz otoitz eginez, aintzat hartu daigun zintzoaren izatea: frutu emoilea da.

R/. JAUNAREN LEGEAN DOT ATSEGINA

Zorionekoa gaiztoen aholkuari jarraitzen ez deutsana,
pekatarien bidean ez dabilena,
ezta lotsabakoen batzarrean jesartzen be;
Jaunaren legean atsegin dauana baino,
haren legea gau eta egun hausnartzen dauana. R/.

Ur-ertzean landaturiko zuhaitzaren antzekoa da:
emoten dau bere sasoian frutua,

eta ez jako orririk igartzen;
egiten dauan guztiak ondo deutso urteten. R/.

Ez holan gaiztoak, ez holan,
haizeak daroan lastoaren antzekoak dira.
Jaunak zaintzen dau zintzoen bidea;
gaiztoena, barriz, galdu egiten da. R/.

Ebanjelioa (Lk 16, 19-31)

Ebanjelioan Jesusek fariseuei zuzentzen deutsen parabola honetan buru-belarri sartu gaitezan, zertara egiten deuskun dei ulertzeko eta adiskidetza bidean jarteko.

Egin deiogun harrerea Jauna goralduz, zutunik.

R/. AINTZA, JESUS ZURI BETI
ZEU ZARA GURE ARGI.

✠ Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik

Aldi haretan, honan berba egin eutsen Jesusek fariseuei: «Bazan gizon aberats bat, purpuraz eta lino finez jantzi eta egunero jai ederrak egiten zituana. Lazaro izeneko eskekoa, ostera, aberatsaren etxe-aurrean etxunda egoten zan, zauriz josita; gogotsu jango eukean aberatsaren mahaitik jausten zana. Txakurrek eurek be etorri eta zauriak miazkatzen eutsoezan.

Horretan, hil zan eskekoa, eta aingeruek Abrahamen altzora eroan eben. Hil zan aberatsa be, eta lurperatu eben. Hilen Egoitzan oinazetan egoala, begiak jaso eta Abraham ikusi eban urrutian eta Lazaro haren altzoan, eta deadarka esan eban: “Aita Abraham, erruki zakidaz!

Bialdu egizu Lazaro atzamar ertza uretan busti eta niri mihina freskatzera, ze, oinaze gorritan nago sugar honeetan".

Baina Abrahamek erantzun eutson: "Seme, gogoratu egizu zuk zeuk zorion ugari izan zenduala bizitzan, Lazarok, barriz, zorigatxak; horregaitik, orain harek atsegina aurkitu dau, eta zuk oinazeak. Gainera, gure eta zuen artean leza handia dago, eta nahita be ezin da inor hemendik zuengana igaro, ezta hortik gugana be".

Aberatsak barriro: "Orduan, aita Abraham, bialdu egizu, mesedez, Lazaro gure aitaren etxera, bost anaia baditut-eta; jarri dagizala jakinaren gainean, eurak be oinaze-leku honetara etorri ez daitezan". Abrahamek erantzun eutson: "Han ditue Moises eta profetak; entzun deieela".

Harek ostera be: "Ez, aita Abraham; hildakoren bat joango balitxake, bihotz-barrituko litzatekez".

Baina Abrahamek erantzun eutson: "Moisesi eta profetei entzuten ez badeutsie, ez dabe sinistuko ezta hildako bat biztuta be"».

Jaunak esana.

Hausnarketa / Aztertze-lana

Otoitzaren eta ebanjelioaren haritik, bilatu daigun zerk gaukazan Jainkoaren adiskidetasunetik bereizita, edo zerk aldentzen gaituan adiskidetasun horretatik guk halan uste ez badogu ere.

0 Azpimarratu daigun, lehenengo ta behin, ebanjelioko aberatsa ez dagoala zigor-sugarretan ezer txarrik egin daualako, bere mahaikadak eta luxuzko janzkerea *ez-ikusia*

edo *ez arduratzea* izan diralako baino.

Hemendixik begiratuko deutsagu, ba, gure bizikereari, ea zertan bizi garan ez-ikusian eta arduragabekerian.

1 BAKEA izan dogu Garizumako lehen domekako gaia.

Gure inguruan, Ukrainan, Palestinan… eta beste berrogei lurraldetan ere gerran diharduela jakinik, sentitu dogu horreen ardura izpiren bat badogula? Eragin deusku zeozertara hori jakiteak?

Ezin dogu mundua aldatu edo baketu. Baina, sarriegitan ez doguz ereiten geure inguruetan *haserrea, zatiketak eta "gerrak"*?

* Bururatu eta bihotzeratu daiguzan egoerok, damutasunez jarteko Jaunaren aurrean.

…/..

V/. Erruki, Jauna. R/ Pekatu egin dogu-ta.

2 ETORKINAK aitatzen genduzan bigarren domekan.

Guk Mediterraneo Itsasoan galtzen diranak somatzen doguz. Baina beste leku askotan dira hilak, akabatuak, baztertuak, gitxietsiak edo esplotatuak… bizitza hobe baten bila urten daben asko eta asko.

Ogia kentzera jatorkuzala uste dauanik ere badago. Gure erosotasuna apurtzen deuskuela uste dogu? Badaezpadakoak balira lez begiratzen deutsegu?

Ze eragin dauka arazo horretan gure *hain ondo bizi izateak* eta gure *kontsumo mailak*?

* Bururatu eta bihotzeratu daiguzan egoerok, damutasunez jarteko Jaunaren aurrean.

…/..

V/. Erruki, Jauna. R/ Pekatu egin dogu-ta.

3 HITZA izan dogu hirugarren domekako gaia.

Jainkoaren Hitza aintzat hartzen dogula esaten dogu, eta eleizkizunetan goraltzen. Baina zenbat bakarkako denpora emoten deutsagu Hitza irakurteari, hausnartzeari, haregaz otoitz egiteari? Zenbat atxakia jarten dogun ez egiten jarraitzeko! Zelango ez-ikusia egiten deutsagun harenganako zaletasunik sartu ez deuskuelako. Baina ez dogu eskatzen irakaspenik; edo, emon gura deuskuenei, entzun-gor egiten deutsegu.

* Bururatu eta bihotzeratu daiguzan egoerok, damutasunez jarteko Jaunaren aurrean.

…/..

V/. Erruki, Jauna. R/ Pekatu egin dogu-ta.

4 BATZARRA izan da laugarren domekako gaia.

Hementxe bai daukagula hutsune handi bat! Bai: alkartasunera egiten jaku dei eta alkarregaz gagozala uste dogu, eta alkartuta… Baina egia beste gauzarik da: bakotxa *berera* gagozala emoten dogu, bakotxak *bere* lekua eukiz, *bereaz* baino ez arduratuz, eta egiten diran deiei edo eskeintzei jaramonik ez eginez.

Ez dogu ikusten geure burua **alkarteari** lotuta, haren esanetara eta zerbitzuan, eta, beste alkarteekaz Eleiza bakarra garala Gotzaina buru dogula.

Horrela, ez gara ezaugarri eta deigarri. **Alkarte** abegikor izatera bultzatzen gaitue… Baina ez-entzun egiten dogu, geure ez-jakina jarriz atxaki lez. Lasai eta eroso gagoz geure ohituretan eta taupadetan. Eta haserrea ere agertzen dogu egoera horretatik urten daigula eskatzen jakunean.

* Bururatu eta bihotzeratu daiguzan egoerok, damutasunez jarteko Jaunaren aurrean.

…/..

V/. Erruki, Jauna. R/ Pekatu egin dogu-ta.

5 Bostgarren gaia **behartsuak** izan da.

Egia esan, **behartsuak** une oro daukaguz gogoan, batez ere herri otoitzean (eskarietan) eta diru-batzeetan ere. Eta esku zabalak garala esan daiteke. Baina…

Zenbateraino autortzen dogu *besteen pobreziaren eragile* (eta errudun) geu garala, hain ondo bizi garalako, kontsumo izugarrian, guztion arteko loturearі lekurik emon barik…?

Pobreziaren aurkako ekintzaren batera deituko baleuskue ez geuke astirik edo erarik aurkituko… Geure erosokeriaren altzoan etxunda bizi gara.

* Bururatu eta bihotzeratu daiguzan egoerok, damutasunez jarteko Jaunaren aurrean.

…/..

V/. Erruki, Jauna. R/ Pekatu egin dogu-ta.

Damutasunerako deia

Hartu daigun gogoan Jesusek aurkeztu deuskun parabolea.

Aberatsaren ateetan zauriz josita dagoan behartsua izenduna da: **Lazaro**. Jesusentzat inportantea da behartsua. Aberatsak ez dauka izenik, eta Jesusek salatu egiten ditu haren mahaikadak eta luxuzko bizitza eta oharkabekeria: bere ateetan dagoana ere ez dau ikusten; txakurrak jatorkoz lagun, zauriak miazkatzera.

Halan ere, oinaze gorritan dagoala, Jainkoak *seme* dinotso aberatsari. Ez dau bere izantasuna galdu.

Izan daiguzan gogoan koadro biok:

—gure bizikeran lehentasuna izan behar dabe *behartsuek*, eta

—horrek ez gaitu eroan behar aberatsak eta ahaltsuak mespresatzera; hareik ere Jainkoaren seme-alaba dira

Espirituaren zirrara somau daigun, ba, eta agertu daigun abadearen aurrean gure damua eta Jainkoagaz adiskidetzeko gogoa. Haren aurrean, **BARRITU NAIZU, JAUNA** esango dogu.

bitartean doinua edo abestiren bat:

Zure aurpegi bila gabiltza gu, Jauna;
Zu zaitugu argi eta salbamen,
Zu, Jauna, biziaren babes.

Uste on izan Jaunagan eta izan gizon,
jaso bihotza eta Jaunagan sendo egon.
Zelan dan aita bere umeentzat bihozbera,
halantxe da Jauna fededunentzat onbera.

ASKAPEN OTOITZA

Jainko Aita errukitsuak,
bere Semearen heriotza eta biztuereaz
mundua beragaz baketu ebanak
eta, pekatuen parkamenerako,
Espiritu santua isuri euskunak,
emon deizuela, Eleizearen bitartez,
parkamena eta bakea.
Eta neuk parkatzen deutsuedaz zuen pekatuak
Aitaren eta † Semaren eta Espiritu santuaren izenean.
—Amen.

Herri otoitza

Alkartasun giroan zuzendu deioguzan eskariak Jainkoari berak erakutsi deuskuzan egoerei erantzun ahal izateko:

—Eleizearen alde: aberaskeria, luxu eta agintekeriak baztertuz, pobreentzat leku egin daian bere agerkera guztietan, *egin daigun otoitz*.

R/. Agertu guri, Jauna, zure errukia

—Kristau alkarteen alde: alkarte kontzientzia hartu daien, eta Jainkoaren Hitzak argitu eta adoreturik, abegikor agertu daitezan, *egin daigun otoitz*.

—Izadiaren eta Gizarte solidarioago baten alde diharduenek eskuzabaltasunez eta errukiz jokatu daien, Jainkoaren aurpegia erakutsiz, *egin daigun otoitz*.

—Jainkoagazko adiskidetza ospatu dogunok alkarregaz adiskidetasunean bizi izan gaitezan, kontsumoa murriztuz eta ingurumena errespetatuz, *egin daigun otoitz*.

Eskari guztiok, eta bihotzean daukaguzanak ere, Jesusek irakatsitako otoitzagaz aurkeztu deioguzan Jainko Aitari:

GURE AITA ZERUETAN ZARANA…

Bakotxaren damu-nekea

Unetxo baten, ikus daigun zelan bizitzaratu geiken

—Bakegileak izatea,

—Etorkinei harrera egitea,
—Jainkoaren Hitza sarriago erabiltea,
—Alkartea bizkortzea eta
—Kontsumoa gitxituz, pobreekaz solidarioagoak izatea.
Jainkoak emoten deuskun zeregina da…

JESUSEN BEGIRADA (MILA KOLORE DANTZAN…)

"*Holan egin da beti*",
alde batera itxi,
aldaketa ez uko:
Eliza barri, danok lekuko.

Begirada zelan dan adi
Jesusi begira bizi
harrera ona gure alkartetan
mila kolore dantzan bihotzetan.

Gaixo zein pekatari
baztertuta, danari
guztiok alkar josi
mundua jagon: hor «Laudato si».

Baltzak eta zuriak
herri txiki, uriak,
erdaldun zein euskaldun
mila kolore danok fededun.

Onespena

† Jauna zuekin.

—Eta zure espirituarekin

† Jainkoak adiskidetu eta adoretu egin zaitue. Zoaze Jaunaren bakean.

—Eskerrak Jainkoari.